

Burdin Aroa

La Hoyako herrixka Kantabriako mendikatearen oinetan zegoen, gaur egun Arabako Errioxa deitzen den eskualdean. Ekialdetik mendebaldera doan bidean egonik, harreman errazak zituen Ebroko ibarrarekin, mesetako iparraldearekin eta Kantauriko alde guztiarekin. Harresi batek babesten zuen herrixka. Bigarren Burdin Aroan gaude. Garai horretan, aurrerapen handiak gertatu ziren zeramikagintzan eta nekazaritzan (lurra lantzeko sistema berriak, golde eta errota berriak...). Laborea zen ekoizpen nagusia; horrekin, besteak beste, garagardo moduko bat egiten zen. Ez zuten ardoa ezagutzen, hori erromatar kulturarekin batera iritsi baitzen. Hemen La Hoyako etxebizitza bat ikus dezakezu.

Sarrerako gela

Gune hau ate-leihoetatik sartzen den eguargiak argiturik dago. Hemen argirik gehien eskatzen duten lanak egiten ziren, hala nola ehuntzea.

Gela nagusia

Erdiko gelan, eguneroko bizimoduarekin zerikusia zuten lan gehienak egin ohi zituzten. Bertan zegoen sua egiteko lekua. Su hori, berotzeko, argitzeko eta janaria prestatzeko erabiltzen zuten; kea, ate-leihoetatik edo sabaian eginiko zuloetik ateratzen zen. Gela honetan egiten zuten lo –lastaira gainean gehienetan–; baxera banku jarrai batean jartzen zuten; eta hildako haurrak ere bertan lurperatzen zituzten.

Jakitokia

Hau jakitokia da. Bertan, uztaren soberakinak pilatzen zituzten edukiera handiko tinetan (hamar litrokoak batzuk).